

2024 K-O

MEMORIA

www.gizaide.eus



Aurkezpena

Gizaide Fundazioa, duela 27 urte eratu zen Buruko Nahasmen Larria duten pertsonak artatzeko.

Caritasek burutu zuen ikerketa baten ondorioz, gizarte bazterkerian eta baita ere buruko osasun arazoak zituzten pertsonak, printzipioz emakumeak, artatu behar zirela nabarmendu zen eta horren ondorioz, **Caritas, Siervas de María de Anglet eta Salesiarrak**, egoera honi erantzuteko leku bat sortzea erabaki zuten. Hasera batean profesional barzuk eta boluntario talde handi batek egindako lan eta ekarpenari esker hasitako ibilbideak egonkortze aldera egin zuen.

Honela, gaur egun, aholkularitza eta sentsibilizazio orokorraz gain, egitasmo hauek osatzen dute zuzeneko esku-hartzea, Gizarte Zerbitzuen prestazio eta zerbitzuen zorroan jasotako zerbitzuen barne daudenak:

Etxebizitza egitasmoa

- Ikuskaritza altuko etxebizitza Ategorrietan
- Ikuskaritza ertaineko etxebizitza Andoainen
- Oso ikuskaritza baxuko ikuskaritza duen etxebizitza Donostiako alde zaharrean.

Birgaitze psikosozialeko eguneko zentroa



Etxebizitza egitasmoak

Etxebizitza egitasmoetan lantzen diren arloak



Autozaintzarekin eta etxeko lanekin erlazionaturiko arloa.



Formazio eta lan arloa.



Harreman sozial egokiak izan eta mantentzen laguntzeko sostengua.



Familia edo bikotekidearekin harreman egokiak ahalbideratu.




Ekonomia arloa antolatu eta lagundu.



Aisi ekintzak eta arlo komunitarioko eskaintzen berri eman.



Gaixotasun kontzientzia landu eta balizko krisiei buruz lanketa egin.



Ategorrieta

Ikuskaritza altuko etxebizitza

Etxebizitza honetan 13 emakume artatzen dira.

Etxebizitza honen helburua ondorengoa da: norbanakoarekin batera plangintzan lantzen joango diren ekintza guztiak aurrera eramanez ahal izateko leku bat izatea, modu honetan, pertsonen bizi kalitate onena lortzen saiatuz, horretarako hauen gaitasuna areagotu eta autonomia handituz.

2024ko datuak

- **Arreta:** 16 emakume artatu dira.
- **Bataz besteko adina:** 57,4 urte.
- **Egonaldi denbora batezbestekoa:** 5urte eta 4 hilabete. Denbora gutxien daraman emakumeak 2 hilabete daramatza eta gehien daramanak 12 urte eta 5 hilabete.
- **Laguntza gaitasun juridikoan:** 5 emakume.
- **Ezgaitasun datuak:** 11 emakumek %65 a edo gehiagoko ezgaitasun portzentaia du onartua.
- **Diru sarrerak:** 6 KGP, 3 Gizarte segurantzako pentsioa, batek lan kontratua dauka eta 6 pertsonen bestelako prestazioak dituzte.
- **Eguneko ekintza:** 11 pertsona eguneko zentro batera doaz, 4
- **Pertsonen tailer okupazionala:** 1 pertsona kontratuarekin dago.





Andoain


Ikuskaritza ertaineko etxebizitza

Lau pertsonentzat zen etxebizitza, 2024ko azarotik aurrera, zortzi pertsonentzat zabaldu dugu. Une honetan lau gizonezko eta hiru emakumezko daude.

Etxebizitza honen helburua ondorengoa da: Bizi kalitate on bat lortu nahian, norbanakoarekin batera plangintzan lantzen joango diren ekintza guztiak aurrera eraman ahal izateko leku bat izatea, bere bizi prozesuarekin jarraitu ahal izateko.

2024ko datuak

- **Arreta:** 6 pertsona artatu dira, 4 gizon eta 2 emakume.
- **Bataz besteko adina:** 51,5 urte. Emakumeen artean, bataz besteko adina 58 urtekoa da eta gizonezkoen kasuan, 48,2 urtekoa da.
- **Bataz besteko egonaldia:** 5,08 urte. Denbora gehien daramatzatenak 6 urte inguru daramatzate eta gutxiengoeak, gehitu diren plazetan, hilabete t'erdi inguru.
- **Laguntza gaitasun juridikoan:** 2 pertsona.
- **Ezgaitasun portzentaia:** 2 pertsonak %65 a edo gehiago du onartua.
- **Ikasketa maila:** seiak oinarrizko ikasketak dituzte.
- **Diru sarrerak:** 2 pertsonak KGP-a jasotzen dute, beste bik bestelako prestazioak eta 2 pertsonak gizarte ekonomiako enpresa batetik lan kontratua dute.
- **Eguneko ekintza:** 5 egoiliar tailer okupazionaletara doaz eta beste batek lan kontratua dauka ekonomia sozialeko enpresa batean.



Parte Zaharra

Oso ikuskaritza txikiko etxebizitza



Etxebizitza honek 4 plaza ditu.

Une hauetan, etxebizitza honen helburua ondorengoa da: Gizaideko proiekturen batean prozesu bat egin duten edota egiten ari diren pertsonei etxebizitza bat eskaintzea.

Urtea amaitzean 3 emakume bizi ziren.

Aurtengo urritik aurrera, psikologo baten, eta boluntariorzarekin egiten zen lana, hezitzaile baten esku-hartzearekin indartu da.

Birgaitze psikosozialeko eguneko zentroa

Birgaitze Psikosozialeko eguneko zentroan hainbat ekintza egiten da honako helburu zehatzak erdiesteko:

- Plangintza indibiduala egin eta jarraitu. Psikologo eta erabiltzailearen artean helburu zehatzak finkatu eta jarraipen bat egin.
- Arlo kognitiboa landu.
- Konpromisoa eta heldutasuna azpimarratu. Zentroan eskaintzen diren aukerak ezberdinak dira, anitzak, pertsona ezberdinen motibazioa asebetetzeko asmoz.
- Harreman sozial eta pertsonalak landu eta sustatu.
- Eremu ezberdinetako diziplinak landu.
- Egonkortasun emozional eta afektiboa bermatzen saiatu.
- Ahalduntze espazioak eman. Norberak bere adierazpen aukera izan dezan parte hartze espazioak ahalbidertzen ditugu.
- Aisia: Norberaren ongizate autopertzepzioan aisia atal garrantzitsua da.

Ezaugarriak

Zentroak 22 plaza ditu.


Zerbitzu honen helburua, parte hartze aktiboa sustatzea da, egunerokotasunari egitura ematea, erabiltzailearen garapen sozio-laborala ahalbidertzea, gaitasuntan sakonduz eta autonomia gehituz, erabiltzailearekin adosturiko plangintzaren arabera

2024ko datuak

- **Arreta:** Urtean zehar 24 pertsona artatu dira, 9 gizon eta 15 emakume.
- **Bataz besteko adina:** Bataz besteko adina 58,5 urte dira. Emakumeen kasuan 59,6 urte eta 56,5 urte gizonezkoen artean.
- **Bataz besteko egonaldia:** 5 urte eta 8 hilabete. Emakumeen kasuan 5 urte eta 9 hilabete eta gizonezkoen kasuan 5 urte eta 5 hilabete.
- **Laguntza gaitasun juridikoan:** 11 pertsona, 4 gizon eta 7 emakume.
- **Ezgaitasun portzentaia:** 21 pertsonen %65 edo ezgaitasun proportzio handiagoa dute.
- **Ikasketak:** 9 pertsonen (5 emakume eta 4 gizon) LH, emakume 1 unibertsitatea eta 15 (9 emakume eta 5 gizon) oinarrizko ikasketak.
- **Diru sarrerak:** 12 pertsonen KGP a jasotzen dute, 2 Gizarte Segurantzako pentsioa jasotzen dute eta hamarrek bestelako prestazio eta pentsioak.



Datu ekonomikoak



Ondorioak eta etorkizunerako erronkak

Ondorioak

Gizaideko I. Plan estrategikoaren irau-naldia 2024 amaitu da eta ezarri ziren helburuekiko maila altua nabarmentze-koa da. Helburu asko etengabea man-tendu beharrekoak izanik ere, beraiek lortzeko moduetan gogoeta egiteak egu-neroko lanerako esku-hartze dinamikak aberastu izan ditu.

Era berean, aurten ere Hizkuntz Politika eta berdintasun arloko I. Plangintzak ere iraungi dira eta pozik egoteko moduan aritu izan bagara ere, batez ere, ibilbidea finkatzeko balio izan digu eta bi arlo hauen garrantziaz Fundazio guztia ohar-tarazteko.

Boluntarioen lanari beharrezko balioa ematen saiatu nahi dugu. Egindako go-goeten ondorioz, egiten den lanaren es-kertzea behar adina ote den pentsatu

izan da. Gure zerbitzuaren kalitaterako ezinbesteko oinarri denez, merezi duen lekua oraindik ere ikusgarriago egiten saiatu nahi da etorkizunean.

Sentsibilizazio eta zabalkunde lanetan jarraitzea ezinbestekoa da buru osasu-naren errealitatea agenda politikoan postu garrantzitsua izan dezan.

Gizarteratze eta aisi arloa lantzea beste etengabea mantentzen dugun erronka da eta “Gertu kulturarekin” batera la-nean jarraitzen dugu, elkarren arteko lana oso emankortzat jotzen dugulako.

Erronkak

Aurretik aipaturiko gaietan azpimarratzeaz gain, 2024 urteari begira Gizaidetik planteatzen ditugun erronkak honakoak lirateke, beti ere jarrrera berritzaileari eutsiz eta malgutasuna ardatz harturik:

- **II. Plan estrategikoa** osatu eta bertan finkaturiko helburu eta ekintzak betetzeko indarrak eta gaitasunak aplikatu.
- **Hizkuntz politikako eta berdintasuneko II. Planak** onartu eta bertan jasotakoak betetzeari ekin.
- Indarrean dagoen **"I. jazarpen sexual eta sexistaren aurkako protokoloa"** eguneratzeari ekin.
- Uneren batean mugikortasun eta beste gaitasun fisiko urritua izan dezaketen erabiltzaileei ahalik eta arreta egokiena emateko modu ezberdinen inguruko gogoetak egin.
- **"Boluntarioen plana"** garatu eta beraien ekarpena balioan jarri.



Eskertzea

- Gure eskertzea memoria honetako emaitzak errealitate bihur daitezen ahalbideratu duten **patronoei, boluntarioei eta kontratatutako langileei**.
- Eskertzea hau **Gipuzkoako Foru Aldundiari** ere luzatzen diogu kontratu programagatik.

Gipuzkoako
Foru Aldundia
Diputación Foral
de Gipuzkoa



ORAIN
GIPUZKOA

- Gizarteratzeko helburuari jarraituz, aisia eta espazio komunitarioen erabilera sustatu eta ezaugarrazten jarraitu, erabiltzaileak bai bakarrik bai taldean erabili eta parte har dezaten.
- Gizarteko esparru ahalik eta zabalenean sentsibilizazio lanak egiten jarraitu, buruko osasunaren errealitatea azaleratzeko.
- Erabiltzaileen sare familiar edota sozialaren aholkularitza espazio bilakatu, beste mota bateko babesarekin erabat bateragarri izan daitekeelakoan. Pertsonaren arreta oso edo integrala lantzen dugunontzat, garrantzia handikoa da inguruko pertsonetikiko elkarlana mantentzea.
- Buruko osasunaren arloan lan egiten duten eragile ezberdinekin harremanak sakondu eta sinergiak ahalbiderratu.